



PRENTSA-OHARRA

Bizikleta-urteerak, zinea, orientazino proba eta Auto Bako Eguna, aurtengo Europako Mugikortasunaren Asteko protagonistak Mungian

- Irailaren 16a eta 22a bitartean, Udalak ekintza desbardinak antolatuko dauz herriko leku desbardinetan
- Ganera, irailaren 30a arte, Mugikortasun iraunkorraren 3. argazki-lehiaketa antolatu dau Udalak

Mungia, 2021eko irailaren 15a. Mungiako Udalak aurtan bere ekintza desbardinekin osatutako programazinoa eskainiko deutse herritarrei Mugikortasunaren Europako Astea dala eta. Horren barruan, irailaren 16a eta 22a bitartean, mugikortasun jasangarria sustatuko daben jarduera ugari bideratuko dira ekimen honen harira, danetan COVID-19aren aurrean indarrean dagozan segurtasun-neurri guztiak errespetatuta beti.

Hasteko, irailaren 17an, barikua, “herri barruan bizikleta erabilten ikasteko tailerra” antolatuko da Matxin plazan, arrastiko 17:00ak eta 18:30ak bitartean. Ekintza hori Mungiako familiei zuzenduta egongo da; Udalak gogorarazo egiten dau honetan parte hartzeko derrigorrezkoa dala bizikleta ekartea, izan bere, herrian zehar urtekerea bat egingo da. Ganera, beharrezkoa izango da aurretiaz izena emotea tokikoagenda@mungia.eus helbidera idatzita. Egun berean, 21:00ak eta 23:00k bitartean, ‘Mobidu hadi!’ zine saioa eskainiko da Torrebillela kultur-etxean. Horretan, iraunkortasuna sustatzeko garraioak erabilta egindako bidaia eta izandako bizipen pertsonalei buruzko film, film labur eta dokumentalen emonaldiak eskainiko dira, kasu honetan Cincecicleta-ren ‘África en Cinecicleta’ dokumentala aurkeztuta. Domekan, barriz, irailak 19, herri mailako orientazino proba egingo da; Foruen plazatik 10:00etan urtengo da eta amaierera 14:00etarako dago programatuta. Izen-emotea cobidea.com helbidearen bidez egin beharko da.

Irailaren 22an, eguaztena, Mungiako ikastetxeetako ikaslegoak ‘Mobidu Oinez’ jardueran hartuko dabe parte, goizeko 9:30etik aurrera; hain zuzen bere, eskola-bideak sustatuta eta mugikortasunagaz lotutako tailerren bidez antolatuta. Amaitzeko, 17:00ak eta 20:00ak bitartean, Matxin plazan Auto Bako Egunaren inguruko ekintzak antolatuko dira, kasu baterako, bizikleta-ginaka eta bizikletaren oinarritzko mantentze-lanen tailerra.

Argazki lehiaketa

Bestalde, Udalak mugikortasun iraunkorraren 3. argazki-lehiaketa antolatuko dau, “Korridu Mungia” izenburua eta gaia erabilita; hau da, argazki-lehiaketa honen helburua, iraunkortasunari eta irisgarritasunari erreparatuta, Mungiako kaleetan zehar zelan mobiduten garan erakustea da. Parte hartzeko, interesdunek gitxienez 3 argazki bidali beharko ditue irailaren 30a baino lehen tokikoagenda@mungia.eus helbide



MUNGIA
UDALA

elektronikora; argazkiotan bizikletea, autobusa, metroa, patinak edo bestelako garraio-bide jasagarriak agartuta. Irabazleak 150 euroko bonua jasoko dau herriko establezimenduetan erabilteko. Lehiaketaren oinarriak eta gainontzeko informazinoa Udaleko web-gunean dago eskuragarri.